



2010. URTEKO ZORRA EKAINEAN KOBRATU DAITEKE

Aurreko ostiralean, maiatzak 31, beste behin bildu zen Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako lan hitzarmeneko negoziazio mahaia. Dagoeneko 11. da eta aurreko bileretan bezala, batez ere, zorraren inguruko bilera izan zen.

Batetik, *Kristau Eskolak*, azkenik, zor erreal (bakoitzari berea) ordaindu behar duela onartu du; bestetik, 2010. urteari dagokion kantitatea ekaineko nominarekin batera ordaintzeko prest dagoela adierazi zuen. Horretarako, administrazioarekin duen helegitearekin jarraitu ahal izateko berma juridikoa eskatu zuen.

Sindikatuaren nahiz Kristau Eskolaren zerbitzu juridikoak saiatuko dira auzi honen inguruko formula juridiko bat adosten. Formula juridiko honek langileek 2010-12 diru- zorra kobratzea edozein erabaki judizialaren gaintetik eta patronalei administrazio aurkako helegitea jartzeko aukera izatea bermatuko luke. Akordio horretan zorra (gutxienez 2010. eneko zorrari dagokiona) noiz eta nola kobratuko den zehaztuko da. Datorren ekainaren 7an egingo den mahai negoziatzailearen bileran oniritzia eman ahal zaio, ekaineko nominan kobratu ahal izateko.

Negoziatio berriari dagokionez, *Kristau Eskolak* lehengo 27 artikuluen inguruko proposamenak aurkeztu zituen. Hau izango da datorren bileran jorratuko dena.

Unean uneko informazioa ematen jarraituko dugu

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org